



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### AIARAKO UDALAK 2019KO IRAILAREN 19AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### PRESIDENTEA:

Gentza Alamillo Udaeta jauna

#### ZINEGOTZIAK:

Montse Angulo Solloa andrea  
Susana Martín Benavides andrea  
Iñigo Pinedo Vadillo jauna  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
José Antonio Gorbea Alonso jauna  
Marian Mendiguren Mendibil andrea  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretziko irailaren 19ko 19:10ean Udala ohiko osoko bilkuran bildu zen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunaren zuzendaritzapean eta aipatutako zinegotzian presentziarekin, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluari jarraikiz. M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas izan zen saioko idazkaria.

#### IDAZKARIA:

M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak ongietorria eman die guztiei, eta, iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako gaiak eztabaidatu eta bozkatu dituzte.

**1º.- Onestea, hala badagokio, 2019ko uztailaren 23ko ezohiko Osoko Bilkurako akta.** Jarraian, Udalbatzari 2019ko uztailaren 23ko ohiko Osoko Bilkurari dagokion aktaren berri eman zaio.

Karmele Población Martínez andreak (EH-BILDU) adierazi du akats bat dagoela saioko parte-hartzaileen zerrendan; izan ere, Marian Mendiguren zinegotzi andrea ez zen bertaratu, eta aktaren arabera bertan zegoen. Horrez gain, ehiza-barrutiaren lizitazioari buruzko esku-hartzean, ipintzen duenean “*Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du ez dutela beste lizitazioei buruzko datuen berri*”, adierazi du alkate jaunak jakinarazi zuela lizitazioak hutsak ari zirela gelditzen, eta berak eskatu zion horien berri izanez gero aurkezteko.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, aho batez adostu da aipatutako akta onestea.

**2º.- Kreditu gehigarriari buruzko 3/2019 espedientearen eta aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzko idazkaritza- eta kontu-hartzailatza txostenaren berri ematea.** Jarraian, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko 381/2019 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaio, zeinaren bidez kreditu gehigarriari buruzko 3/2019 espedientea onesten den, 25.349,38 euroko zenbatekoarekin eta gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinarekin finantzatua.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

Halaber, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko kontu-hartzailtza txostenaren berri eman zaio, aipatutako kreditu gehigarria finantzatzeko diruzaintza-geldikinaren erabilera dela eta aurrekontu-egonkortasunaren urratu izanaren harira. Honela dio txostenak:

### **“KONTU-HARTZAILTZA TXOSTENA**

**GAIA:** Aurrekontuaren aldaketak, gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinarekiko karguarekin.

Aiarako Udaleko kontu-hartzailtza karguarekin lotutako funtzioetan oinarrituta eta Arabako Toki Erakundearen aurrekontu egonkortasuna eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak (17/2014 Foru Arauaren bidez aldatua) diruzaintza-geldikinaren erabilerari begira ezarritako aldaketak kontuan hartuta, zeinen bidez geldikinaren karguko kreditu-aldaketa bat onesteko beharrezkoa izango den Udalbatzaren Osoko Bilkurari kontu-hartzailtza txosten bat jakinaraztea egonkortasun-helburuaren urraketa egiaztatuz, honako txosten hau igortzen da, bi eranskinez osatua:

- I. eranskina: geldikina hainbat kreditu gautzeko erabiltzeko proposamena.
- II. eranskina: diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako gastuei begira egonkortasun-helburua betetzeko kontu-hartzailtza txostena.

### **I. ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.**

2018KO LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA, ESPEDIENTE HAU BAINO LEHEN AGORTU GABEA: 311.214,50 € (gainerakoa honako espediente hauetarako erabili da: 1/2019 Espedientea, 2018an baimendutako eta ekitaldi horretan ez agortutako kreditu-geldikinak gehitzeari buruzkoa; 1/2019 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa; eta 2/2019 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa).

**ERABILERA-PROPOSAMENA: 25.349,38 €**

AIARAKO KUADRILLARENTZAKO EKARPENA ENVISER EDUKIONTZIAK EROSTEKO: 8.475,68 €).

“IGERILEKUKO ALDAGELEN ESTALKIA ALDATZEKO” OBRAREN PROIEKTUA IDAZTEA, OBRAREN ZUZENDARITZA ETA OSASUN- ETA SEGURTASUN-KOORDINAZIOA: 4.719,00 €).

UDALERRIKO ADMINISTRAZIO-BATZARREI FINANTZAKETA TRANSFERITZEKO GEHIGARRIA: 8.654,70 €).

EKIPAMENDU INFORMATIKOAK EROSTEA: 3.500,00 €).

**ZENBATEKOA GUZTIRA: 25.349,38 €**



**II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA**

**EGONKORTASUNAREN EZ-BETETZEAREN HARIRA**

**I. TXOSTENAREN OINARRIA**

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, aribideko urtean edo hurrengoan helburuak eta gastu araua betetzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, foru arau horren 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordezkari kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaiola dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko dituen:

a) Erakundearen zein haren menpeko erakundearen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.

b) Dirusarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.

c) Dirusarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.

d) Diruzaintzako gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.

e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.


Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, kontu hartzeko organoaren txostena eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidaliko dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.

Epe hori pasatu bada eta Arabako Foru Aldundiak esanbidezko ebazpena eman ez badu, espedienteak izapidetzen jarraitu ahalko da.

**EREMU SUBJEKTIBOA:**

Txosten honen helburua da aztertzea Aiarako Udalaren egonkortasun eza, zeina sortu den aurrekontu aldaketa (txosten hau aldaketaren espedientearen zati da) diruzaintzako gerakinen bidez finantzatzeagatik.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### HELBURUAK:

Proposatutako aurrekontu aldaketa diruzaintzako gerakinen bidez finantzatzeak egonkortasun printzipioa urratzen du; dena den, ez-betetze hori ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.

Beraz, aurrekontu magnitudeak aztertu behar dira. Hain zuzen ere, txosten honekin helburu hauek egiaztatu nahi dira:

Aurrezki garbirik badagoen

Diruzaintzako gerakinik badagoen

Zorpetze bateratuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den

Aurrekontu egonkortasun bateratuak superabita edo finantzaketa ahalmena agertzen duen

(KESen arabera)

Gastu araua betetzen den

Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), hauxe izango da txostenaren egitura:

1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen eta, hala badagokio, haren menpeko erakundeen aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen diren ala ez aztertuko da.


2.- Gastuen eta diru sarreraren egoeren proiektzioak, eta haien oinarri diren suposizioak.

3.- Diruzaintzako gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoeraren azterketa.

## II. EGUNGO EGOERAREN EKONOMIA ETA FINANTZA DIAGNOSTIKOA: AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUAK

Onartutako azken likidazioko datuetatik (2018ko ekitaldia), honako hauek nabarmenduko ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATEK OA	BETETZEN DA / EZ DA BETETZEN
Aurrezki garbi doitua	553.209,91 €	POSITIBOA
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina	588.263,66 €	POSITIBOA
Aurrekontu-emitza	328.072,03 €	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu- egonkortasuna	302.088,60	SUPERABITA BETETZEA
Gastuaren erregela	-122.672,80 €	-4% BETETZEA



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### **GASTUEN ETA DIRUSARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

*Ekonomia eta finantza planeko zifrak aldi honetarako proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehatz definitzeko, EGOERA hau hartu dugu abiapuntutzat:*

- *Susperraldi arina sumatzen ari gara eta pentsatzen dugu horrek toki erakundeen jarduera ekonomikoa mantenduko duela, edo apur bat handitu (bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean izandako parte-hartzean lortutakoak). Ondorioz, tokiko dirusarrerak areagotu eta zerbitzu publiko gehiago eskainiko dira.*

- *Gastuei bagagozkie, murrizketekin jarraituko da, bai langile gastuetan bai bestelakoetan. Murrizketa horien atzean daude estatuaren aurrekontu orokorren legeak eta aurrekontu egonkortasuna lortzeko ezarritako murrizketak (gastu-araua, gastu-muga, egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna).*

### **MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.**

*Jarraian xehatuko da adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen eboluzioa:*

<b>HELBURUAK</b>	<b>2.017</b>	<b>2.018</b>
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	167.278,99	302.088,60
<b>%Egonkortasuna/Dirusarrera ez-finantzarioak</b>	% 7,14	% 12,64
<b>Gastuaren erregela</b>	81.368,53	- <b>122.672,80</b>
<b>Zorpetzea</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Aurrezki garbi doitua</b>	306.668,44	553.209,91
<b>%Aurrezki garbia/Dirusarrera korrontek</b>	% 14,19	% 24,90
<b>DIRUZAINZAKO GERA KINA</b>	550.133,56	588.263,66

### **III. AURREKONTU ETA FINANTZEN EGOERA DIRUZAINZAKO GERA KINA AGORTZERA KOAN.**

#### **III-C.1 DIRUZAINZAKO GERA KINA.**

*Diruzaintzako gerakin positiboak erakundearen epe laburreko guztizko likidezia metatua islatzen du, une jakin batekoa, erabilgarri dagoena etorkizun hurbilean gastuak finantzatzeko.*

#### **Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin doitua.**

*Gastu orokorretarako gerakina aurrekontuari aplikatzeke dauden hornitzaileen datuekin eta ordaintzeke dauden diru sarreraren itzulketekin doitzen da, eta horrek magnitude honen egoeraren ikuspegi errealagoa eskaintzen digu. Magnitude honek toki erakundearen epe laburreko benetako likideziaren berri ematen digu.*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### **III-C.2 AURREZKI GARBIA.**

Aurrezki garbiak erakusten digu zein den erakundearen zorpetze ahalmena. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du ahalmenik epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa izanez gero, erakundeak epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko zer ahalmen duen jakingo dugu, bai eta eragiketa horiek zein zenbatekorekin eta baldintzarekin hitzar ditzakeen ere. Dena dela, magnitude honek erakundearen zorpetze ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa ematea nahi badugu, foru arauak ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, aparteko diru sarrerak eta errepikatzen ez direnak kenduz.

### **III-C.3 FINANTZA ERAKUNDEEKIN EGINDAKO ZORRA.**

Zor bizia erakundearen finantza kaudimena ebaluatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen arazoak gehiegizko zorpetzeagatik sor daitezke, zeinek finantza karga handitzea dakarren. Horri gainerako gastu arrunta gehitzen bazaio, ezinezkoa egiten da arazoak erakundearen diru sarrera arrunten bidez xurgatzea eta, beraz, aurrezki garbia negatiboa izango da.

### **III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.**

Aurrekontu egonkortasunaren bidez, erakundearen finantzaketa ahalmena / beharra ezagutuko dugu. Egonkortasunak zeharka berekin dakar zorpetzeari mugak jartzea, urtero amortizatzen den zenbatekotik gora (KES 95en arabera kalkulaturia) handitu ez dadin. Erakundeak finantzaketa beharra badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru sarrera ez-finantzarioek baino gehiago egiten badute, erakundeak kanpoko finantzaketa beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzaketa ahalmena badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru sarrera ez-finantzarioek baino gutxiago egiten badute, horixe izango da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina.

### **III-C.5 GASTU-ARAUUA.**

Gastu araua zera da: zerga arau bat, gastu konputagarria mugatzeko xedea duena. Hartara gastu hori, ekitaldi ekonomiko batetik bestera, ez da handituko aurrekontu ekitaldi bakoitzerako onartutako ehunekoa baino gehiago. Hori horrela, aurrezki publikoa areagotzea lortuko da eta mugatu egingo da gastu gehikuntza, baldin eta horrekin batera ez badago ezarrita dirubilketa areagotzeko neurri osagarriak. Magnitude hori zehazteko, 2018ko aurrekontuaren likidazioa erabiliko da.

### **III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERARI BURUZKO ONDORIOAK**

Txosten honetako suposizioen arabera aztertutako gastuen eta diru sarreren egoeren kapituluen proiektzioetatik ondorioztatzen dugu aurrekontu aldaketa diruzaintzako gerakinak erabiliz finantzatzeko **ez duela sortzen egiturazko desorekarik erakundearen, baizik eta koiunturazkoa, eta ezarritako xedeak berriro beteko direla urtebete barru, ekonomia eta finantza planik prestatu behar izan gabe.**



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### IV. **INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA.**

Datozen ekitaldietarako dauzkagun proiektzioak kontuan hartuta, aurrezki arrunt garbia positiboa izango dela uste dugu. Hortaz, aurrekontu aldaketa honen bidez finantzatuko den gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor daitekeen gastu arrunta erakundearen diru sarrera arrunten bidez ordaindu ahalko da. Horrez gain, zorpetze ratioa aurrekontu ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dagoenez, bi datuok batera hartuz, argi dago **etorkizuneko finantza iraunkortasuna ez dagoela arriskuan.**

Gainera, kontuan hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela gastu korrontea areagotuko etorkizuneko ekitaldietan.

*Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.*

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, txosten hau eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidali behar dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.


*Arespalditzan.- IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas."*

Udalbatzak Kontu Hartzaitzaren 2019ko irailaren 5eko txostenaren berri izan duela adierazten du. Izan ere, 25.349,38 euroko kreditu gehigarri bat finantzatuzeko gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina erabili da, eta horrek aurrekontu-egonkortasuna urratu du.

**3º.- Euskal Herriko Landa Garapenerako Programarako (LEADER) dirulaguntza eskatzea, "Luaiondoko Barrena kaleko hirigintza-eraberritzerako eta "udal-igerilekuetan espazio estalia instalatzeko" obretarako**.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Kontuen Informazio Batzorde Bereziak eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Erregimeneko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2019ko irailaren 10eko bilkuran, Udalbatzaren Osoko Bilkurak Leader gunean gehitutako landa-udalerrien sustapenera, garapenera eta dibertsifikazio ekonomikora zuzendutako dirulaguntzen deialdian parte hartzeko akordioa hartzearen aldeko txostena egin zutela. Deialdi hori Euskal Herriko Landa Garapenerako Programaren (2015-2020) testuinguruan onetsi zen, 2019ko abuztuaren 9ko Aginduekin batera. Honako obretarako dirulaguntzak eskatu dituzte:

- **"HIRIGINTZA-ERABERRITZERAKO PROIEKTUA LUAIONDOKO BARRENA KALEAN: APARKALEKUAK GAITZEA, MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA AISIALDIRAKO GUNEA.**
- **ESPAZIO ESTALIA INSTALATZEA UDAL-IGERILEKUETAN"**

Udalbatzak horien berri izan du, eta aho batez adostu du Leader gunean gehitutako landa-udalerrien sustapenera, garapenera eta dibertsifikazio ekonomikora zuzendutako dirulaguntzen deialdian parte hartzea, zeina Euskal Herriko Landa Garapenerako Programaren (2015-2020) testuinguruan onetsi zen, 2019ko abuztuaren 9ko Aginduekin batera. Horrela, dirulaguntza eskatu dute aipatutako bi obretarako, eta biak exekutatzeko konpromisoa hartu dute.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

**4º.- Aiarako Udalaren eta gaixotasun mentalak dituzten familiar eta pertsonen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2019. urtea.** Jarraian, Udaltzari 2019ko irailaren 5eko Alkatetza Akordioaren berri eman zaio, zeinak honakoa dioen:

*"IKUSI DA.- Asasam irabazi-asmorik gabeko elkarteak Aiarako eskualdean egin duen lana sustatzeko eta harekin lankidetzaz aritzeko udal-interesa. Lan hori, gainera, onuragarria da udalerriko hainbat pertsonentzat.*

*IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta ASASAM elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmenerako proposamena, elkartearen jarduerak 2019an izango dituen gastuen zati bat diruz laguntzeko.*

*AINZAT HARTU DA.- Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko.*

*Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako AKORDIO hau hartzea proposatzen da:*

***Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta gaixotasun mentalak dituzten familiarren eta pertsonen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea, 2019ko jarduerako gastuak ordaintzeko. Honela dio testuak:*

“AIARAKO UDALAREN ETA GAIXOTASUN  
MENTALAK DITUZTEN FAMILIARREN ETA PERTSONEN AIARAKO ELKARTEAREN (ASASAM)  
ARTEKO LANKIDETZAZ-HITZARMENA. 2019

*Arespalditzan, 2019ko martxoaren (e)(a)n.*

**BILDU DIRA**

*Alde batetik, Gentza ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera.*

*Bestetik, andrea, adinez nagusia eta NAN-zenbakiaren titularra, gaixotasun mentalak dituzten familiarren eta pertsonen Aiarako elkartearen (aurrerantzean Asasam) presidentea.*


**ESKU HARTU DUTE**

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.*

*Bigarrenak, ASASAM elkartearen (IFK: G01048594) izen eta ordezkartzan, eta atxiki den ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu pertsonalitatea eta ordezkartza.*

*Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzaz-hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritik, honakoa*





# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### XEDATZEN DUTE

I. ASASAM elkarteak irabazi-asmorik gabeko elkarteak dela, eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familiarrek osatzen dutela. Elkartearen helburua arreta integrala eskaintzea da gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektiboari, eta, horretarako, hainbat programa eta proiektu garatuko dituzte urtean zehar:

- Gizarte-ekintzarako programa
- Esku-hartze psiko-hezitzaileko programa.
- Zentro psikosoziala.
- Egoitza-programa.
- Gizarte- eta lan-integrazioarako programa.
- Orientazioa eta laguntza psikologikoa.
- Esku-hartze komunitarioarako programa.

II.- Aiarako Udalak, ASASAM elkarteak eskualdean egiten duen gizarte-lana aintzat hartuta, eta kontuan hartuta lan hori onuragarria dela Aiarako udalerriko hainbat pertsonentzat, jardueraren alde egitea erabaki du, besteak beste, lankidetzak-hitzarmen onen bidez, zeinak urtero elkarteari emango zaion dirulaguntza arautzen duen. Laguntza horrekin, elkarteak hainbat jardura antolatu ahal izango ditu urtean zehar.

III.- Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzak-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzak-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

### ESTIPULAZIOAK

**LEHENENGOA.-** Aiarako Udalak hitzarmenari begira duen xedea ASASAM elkarteak 2019an zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea da, pertsona-kolektibo horren garapenaren eta integrazioaren alde egiten baitute. Hitzarmen honen kargura diruz lagunduko diren jarduerak "I. azalpen-atalean" jasotakoak izango dira.

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak sustatuko dituen jardueren edukia ASASAM elkarteak burututako eta aurreko atalean deskribatutako jarduerak dakartzaten gastuen dirulaguntzan zehazten da.

**HIRUGARRENA.-** Administrazio horrek jarduerak sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza aurretik deskribatutako jardueren gastuei aurre egiteko erabiliko da.

Dirulaguntza jardueretatik eratorritako gastuen arabera kalkulatu da, ASASAM elkarteak beste dirulaguntza batzuei esker lortutako dirusarrerak kendu ondoren.

Udalak 2019ko ekitaldian zehar hitzarmenari begira ordainduko duen dirulaguntza **BOSTEHUN EUROKOA (500)** izango da gehienez.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*LAUGARRENA.- Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez 500 euro), jarraian zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztuko da:*

*a) Jasotako dirulaguntza guztien aitorpena, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.*

*b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria.*

*c) Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:*

- Diruz lagundutako ekitaldiaren dirusarrera eta gastuen balantzea*
- Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko deklarazioa)*
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), dirusarrera eta gastuekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz.*

*Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*2020ko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

*BOSGARRENA.- Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2019. urtera.*

*SEIGARRENA.- Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.*

*ZAZPIGARRENA.- ASASAM elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzara islatu behar du publizitate-ekintzetan.*

*ZORTZIGARRENA.- ASASAM elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen bi kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 4 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute.*

ALKATE-PRESIDENTEA,

ASASAM-EKO PRESIDENTEA,

*Sin.- Gentza Alamillo Udaeta*

*Sin.- M<sup>a</sup> Angeles Arbaizagoitia Tellería*

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,

*Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.*

*Alkateak eta idazkari eta kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua*”.

**Bigarrena.**- *Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.*

**Hirugarrena.**- *ASASAM elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan.*”

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**5º.- Aiarako Udalaren eta Aiarako Bolatoki Taldea elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2019an Euskadiko Boloen Txapelketa antolatzeke.** Jarraian, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko Alkatetza Akordioaren berri eman zaio, zeinak honakoa dioen:

*"IKUSI DA.- Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren kultura- eta kirol-manifestazioak sustatzeko duen interesa.*

*IKUSI DA.- AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkarte elkarte irekia dela bai Aiarako biztanleentzat eta bai udalerriko elkarteentzat, eta haren helburua, kultura eta kirola sustatzeaz gain, erabilera soziala dela.*

*IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena, 2019an Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeak ekarriko dituen gastuak ordaintzeko.*

*AINTZAT HARTU DA.- Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko.*

*Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako AKORDIO hau hartzea proposatzen da:*

**Lehenengoa.**- *Aiarako Udalaren eta AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, 2019an Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeak ekarriko dituen gastuak ordaintzeko. Honako hau da testua:*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

" AIARAKO UDALAREN ETA AIARAKO BOLATOKI TALDEA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA 2019. URTERAKO.

Arespalditzan, 2019ko irailaren (e)(a)n

### BILDU DIRA

Alde batetik, *Gentza ALAMILLO UDAETA* jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, *M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas* Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera.

Bestetik, *Beatriz Isasi Ugarte andrea*, bizitokia .....-n duelarik.

### ESKU HARTU DUTE

*Lehenengoak*, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen ega ordezkartzan, *Toki Araubidearen Oinarriak* arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.

*Bigarrenak*, AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkartearen (IFK: G-01260934) izen eta ordezkartzan, eta elkarteak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu pertsonalitatea eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztuta, non AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkartearen presidentea aukeratu eta izendatzen den.

*Bi alderdiek* erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzaz hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritik, honakoa

### XEDATZEN DUTE


**I.-** Aiarako Udalak, kultura, kirola, tradizioa eta haiek arlo guztietan erabiltzea sustatzeko udal-interes publikoari erantzunez, honako ekimen hauen bitartez jardungo du besteak beste:

- Aisialdian, kultura-eskaintzan, festa patronaletan eta bestelako azoketan erabilera-aukerak sortuz.
- Kultura eta kirola sustatzeko kanpaina eta jarduerak antolatuz.
- Egokitzat jotzen diren beste ekimen batzuen bidez.

**II.-** Aiarako Udalak, udalerrian kultura eta kirola sustatzeko helburuarekin, hitzarmen honen arabera jokatu du, zeinak AIARAKO BOLATOKI TALDEARI 2019an Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeko esleituko zaion dirulaguntza arautzen duen. Izan ere, diruz lagunduko dira antolakuntza-kostuak.

**III.-** AIARAKO BOLATOKI TALDEA elkarte elkarte irekia dela bai Aiarako biztanleentzat eta bai udalerriko elkarteentzat, eta haren helburua, kultura eta kirola sustatzeaz gain, erabilera soziala dela.

**IV.-** Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzaz hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### ESTIPULAZIOAK

**LEHENENGOA.-** Aiarako Udalaren hitzarmen honen xedea da kirola eta kultura sustatzeko hainbat ekimen eta jardueraren alde egitea, **AIARAKO BOLATOKI TALDEA** elkartearekiko lankidetzeta eta koordinazioaren bitartez, 2019ko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeke, *bestek beste*.

**BIGARRENA.-** Aiarako Udalak sustatuko dituen jardueren edukiak **AIARAKO BOLATOKI TALDEA** elkarteak 2019ko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeke izango dituen gastuak diruz laguntzeari buruzkoa izango dira.

**HIRUGARRENA.-** Administrazio honek jarduera gauzatzeko ordainduko duen dirulaguntza 2019ko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeke erabiliko da.

Dirulaguntza kalkulatzeko txapelketa hori antolatzeke gastuak hartuko dira kontuan, esate baterako materiala, publizitatea, sariak... Dirulaguntzaren zenbatekotik elkarteak parte-hartzaileen eskutik jasoko dituen dirusarrerak kendu beharko dira, baita jasoko dituzten gainerako dirulaguntzak ere, kontuan hartuta elkarteak ezin izango duela gehiegizko finantzaketarik eskuratu aipatutako diziplinentzat.

Udalak hitzarmenari begira ordainduko duen dirulaguntza **HIRU MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (3.500,00)** izango da gehienez.


**LAUGARRENA.-** Udal dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortzea, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak. Horrekin batera, parte-hartzaileek izena emateko ordaindutako kuoten aitortzea ere gehituko da.

b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria, edo, halakorik eduki ezean, Udalak dagozkien organismoen informazio hori eskatu ahal izateko baimena.

c) “2019ko Euskadiko Bolo Txapelketaren” antolakuntza-jarduerarekin lotutako dokumentazio hau:

- Jardueraren dirusarreraren eta gastuen balantzea (parte-hartzaileen kuotak eta organismo publiko eta pribatuaren eskutik lortutako dirulaguntzak dirusarreretan gehituz).
- Jardueraren memoria
- Antolakuntza-gastu guztien justifikazio-dokumentuak:
  - Txapelketa antolatzeke espresuki kontratatutako langileen gastuen justifikazioaren kasuan: Nominen eta Gizarte Segurantzaren kopia, dagozkien ordainketa-dokumentuak atxikiz, kontratatutako langileei dagozkien TC-1 eta TC-2 dokumentuen kopiak, hala badagokio, eta dagozkien soldatak ordaindu izanaren egiaztagiria.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

- Bestelako gastuak: Justifikazio-fakturak, haien igorpenerako baldintza legal guztiak betetzen dituztenak. Transferentzia bidez egiten bada, ordainagiria atxiki beharko da, eta, eskudirutan ordainduz gero, faktura.
- Elkarteko idazkariaren ziurtagiria, txapelketako parte-hartzaile kopurua egiaztatuko duena.

2020ko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, dirulaguntzaren esleipena baliogabetuko da justifikazio-ezagatik, eta, hala badagokio, hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

**BOSGARRENA.-** *Salbuespenak alde batera utzita, diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2019. urtera.*

**SEIGARRENA.-** *Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.

**ZAZPIGARRENA.-** *AIARAKO BOLATOKI TALDEA* elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzeta eta haren babesa islatu beharko ditu publizitate-ekintzetan.

**ZORTZIGARRENA.-** *AIARAKO BOLATOKI TALDEA* elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 4 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute, goiburukoan zehaztutako data eta lekuan.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,


Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas

AIARAKO BOLATOKI TALDEA ELKARTEKO PRESIDENTEA,

Sin.: Beatriz Isasi Ugarte".

**Bigarrena.-** *Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

**Hirugarrena.- AIARAKO BOLATOKI TALDEA** elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan.”

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**6º.- Aiarako Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso eskolaren arteko lankidetz hitzarmena, 2019.** Jarraian, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko Alkatetza Akordioaren berri eman zaio, zeinak honakoa dioen:

*"IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso eskolak ikastetxean jasotzen dituen ikasleekin egindako gizarte-lana, eta Aiarako Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.*

*IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso eskolaren arteko lankidetz hitzarmenerako proposamena, ikastetxeak ikasleekin 2019an zehar burutuko dituen ekimen eta jarduerak diruz laguntzeari buruzkoa.*

*AINZAT HARTU DA.- Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko.*

*Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako AKORDIO hau hartzea proposatzen da:*

**Lehenengoa.-** *Aiarako Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso eskolaren arteko lankidetz hitzarmena onestea, ikastetxeak ikasleekin 2019an zehar burutuko dituen ekimen eta jarduerak diruz laguntzeari buruzkoa, honako testu honekin:*


**" AIARAKO UDALAREN ETA MENAGARAIKO AMOR MISERICORDIOSO  
ESKOLAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA. 2019**

*Arespalditzan, 2019ko -ren (e)(a)n.*

**BILDU DIRA**

*Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, 44686448-R NAN-zenbakiarekin, Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera, Naiara LAZPITA MARCOS andrea, 45.676.325 NAN-zenbakiarekin, zeinak guztiaren fede ematen duen.*

*Bestetik, Elisa PEREZ BAÑOS andrea, adinez nagusia eta ..... NAN-zenbakiaren titularra, Menagaraiko AMOR MISERICORDIOSO eskolako zuzendaria.*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### ESKU HARTU DUTE

*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen ega ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.*

*Bigarrenak, AMOR MISERICORDIOSO eskolaren (IFK: R-0100129-F) izen eta ordezkartzan, eta eskolak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu pertsonalitatea eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztuta, non zuzendari aukeratu eta izendatzen den (hitzarmen honetara atxiki da 1. dokumentu moduan).*

*Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzaren hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritik, honakoa*

### XEDATZEN DUTE

*I.- Aiarako Udalak, AMOR MISERICORDIOSO eskolak egiten duen gizarte-lana aintzat hartuta, hitzarmena sinatzea erabaki du, zeinak urtero elkarteari emango zaion dirulaguntza arautzen duen. Laguntza horrekin, elkarteak hainbat jarduerara antolatuta ahal izango ditu urtean zehar.*

*II.- Aplikagarria den legedia betetzeko eta toki-erakundeek lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:*

### ESTIPULAZIOAK

*LEHENENGOA.- Aiarako Udalak hitzarmenari begira duen xedea AMOR MISERICORDIOSO eskolak urtean zehar garatuko dituen ekimen eta jarduerak sustatzea da, ikasleen garapen pertsonala errazteaz gain haien bizi-kalitatea hobetuz baitute. Hitzarmen honen kargura diruz lagunduko diren jarduerak honako hauek izango dira:*

- Ikasleen bizitza eta hezkuntza-jarduerak hobetu eta erraztuko dituzten altzairu, tresna edo lanabesak erostea.*
- Ikasleen integrazioaren eta garapen pertsonalaren alde egingo duten kultura- eta aisialdi-jarduerak burutu eta antolatzea.*

*BIGARRENA.- Aiarako Udalak sustatuko dituen jardueren edukia AMOR MISERICORDIOSO eskolak burututako eta aurreko atalean deskribatutako jarduerak dakartzaten gastuen dirulaguntzan zehazten da.*

*HIRUGARRENA.- Administrazio horrek jarduerak sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza aurretik deskribatutako jardueren gastuei aurre egiteko erabiliko da.*

*Dirulaguntza jardueretatik eratorritako gastuen arabera kalkulatu da, eskolak beste dirulaguntza batzuei esker lortutako dirusarrerak kendu ondoren.*





# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*Udalak hitzarmenari begira ordainduko duen dirulaguntza BI MILA EUROKOA (2.000,00) izango da gehienez.*

*LAUGARRENA.- Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez 2.000 euro), zenbateko horrekin lotutako dokumentazioa aurkeztuko da:*

- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu izanaren ziurtagiria, edo Aiarako Udalari erakunde horiei ziurtagiri horiek eskatzeko baimena emango dion dokumentua, behar bezala sinatua.*
- Horrez gain, udal dirulaguntzaz gain jasotako dirusarrera guztiak ere aitortu beharko dira (AFAREN dirulaguntza eta bestelakoak, KONTRATU HONEK DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA ETA MATERIALEI BURUZKOAK. Betetzeko formularioa atxiki da).*
- Diruz lagundutako jarduera edo programen dirusarrera eta gastuen balantzea.*
- Programaren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio- edo azalpen-fitxa, egin izanaren zinpeko deklarazioa eta, hala badagokio, dirulaguntza honekin erositako altzairu, tresna eta lanabesen deskripzioa).*
- Gastua justifikatzeko fakturen kopia eta ordainagiriak.*

*Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*2020ko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

*BOSGARRENA.- Salbuespenak alde batera utzita, diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den urtearen denbora-mugetara egokituko da, hau da, 2019. urtera.*

*SEIGARRENA.- Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*ZAZPIGARRENA.- AMOR MISERICORDIOSO* eskolak Aiarako Udalarekiko lankidetzara eta haren babesarekin islatu beharko ditu publikitate-ekintzetan.

*ZORTZIGARRENA.- AMOR MISERICORDIOSO* eskolak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen honen hiru kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 4 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute, goiburukoan zehaztutako data eta lekuan.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta

Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.

*Alkate jaunak eta idazkari andreak elektronikoki sinatutako dokumentua.*

*AMOR MISERICORDIOSO ESKOLAKO ZUZENDARIA,*

*Sin.- Elisa Pelaz Baños".*

**Bigarrena.**- Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.

**Hirugarrena.**- Menagaraiko Amor Misericordioso eskolari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan."

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**7º.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2019.** Jarraian, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko Alkatetza Akordioaren berri eman zaio, zeinak honakoa dioen:

**“IKUSI DA.-** Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren kultura- eta festa-manifestazioak sustatzeko duen interesa.

**IKUSI DA.-** ESKUTXIKO AHOTSAK elkarte elkarte irekia dela bai Aiarako biztanleentzat eta bai udalerriko elkarteentzat, eta haren helburua musikaren sustapena eta erabilera soziala dela.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, 2019an zehar elkartearen urteko jarduera-programaren garapenaren gastuak eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko.*

*AINZAT HARTU DA.- Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko.*

*Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako AKORDIO hau hartzea proposatzen da:*

**Lehenengoa.-** *Aiarako Udalaren eta ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onestea, 2019an zehar elkartearen urteko jarduera-programaren garapenaren gastuak eta funtzionamendu gastuak ordaintzeko. Honako hau da testua:*

**" AIARAKO UDALAREN ETA ESKUTXIKO AHOTSAK ELKARTEAREN  
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2019. URTERAKO**

*Arespalditzan, 2019ko        -ren (e)(a)n.*

**BILDU DIRA**

*Alde batetik, Gentza Alamillo Udaeta jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera, zeinak guztiaren fede ematen duen.*

*Bestetik, Manuela Otero andrea, adinez nagusia, ..... NAN-zenbakiaren titularra eta ..... helbidean bizi dena.*

**ESKU HARTU DUTE**


*Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-presidente moduan, toki-erakunde horren izen eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritik.*

*Bigarrenak, ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearen (IFK: G-01272798) izen eta ordezkartzan, eta elkarteak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu pertsonalitatea eta ordezkartza, aktaren fotokopia aurkeztuta, non ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearen presidentea aukeratu eta izendatzen den.*

*Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzahitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorritik, honakoa*

**XEDATZEN DUTE**

*I.- Aiarako Udalak, musika eta haren erabilera sustatzeko udal-interes publikoari erantzunez, honako ekimen hauen bitartez jardungo du besteak beste:*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

- Aisialdian, kultura-eskaintzan, festa patronaletan eta bestelako azoketan erabilera-aukerak sortuz.
- Kultura musikala sustatzeko kanpaina eta jarduerak antolatuz.
- Egokitzat jotzen diren beste ekimen batzuen bidez.

II.- Aiarako Udalak, udalerrian kultura musikala sustatzeko helburuarekin, hitzarmen honen arabera jokatu du, zeinak ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteari urteko jarduera-programa garatzeko eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko esleituko zaion urteko dirulaguntza arautzen duen.

III.- ESKUTXIKO AHOTSAK elkarte elkarte irekia dela bai Aiarako biztanleentzat eta bai udalerriko elkarreentzat, eta haren helburua musikaren sustapena eta erabilera soziala dela.

IV.- Sortu zenetik, ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteak interesa erakutsi du Aiarako Udalarekin lankidetzan aritzeko eta jarduerak antolatzeko.

V.- Aplikagarria den legedia betez eta toki-erakundeek lankidetzat-hitzarmenak sinatzeko duten ahalmenari erantzunez, bi alderdiek lankidetzat-hitzarmen hau formalizatzen dute, eta honako estipulazio hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

### ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren hitzarmen honen xedea da musika sustatzeko hainbat ekimen eta jardueraren alde egitea, ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearekiko lankidetzat eta koordinazioaren bitartez. Horretarako, ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteak urtero doako hainbat kontzertu antolatzeko konpromisoa hartu du, Aiarako herritarrei zuzenduak:

- 1.- Gabonak.
- 2.- Santa Cecilia.
- 3.- San Vitores.
- 4.- San Prudencio.


5.- Berdintasunaren aldeko kontzertua, Aiarako Emakumeen Jardunaldietan edo Udalak alde horretatik egokitzat jotzen dituen jardueretan.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia zehazteko, ESKUTXIKO AHOTSAK elkartearen urteko jarduerarekin eta funtzionamendu-gastuekin lotutako dirulaguntza hartuko da kontuan, hitzarmen honetan klausuletan jasotakoarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- Administrazio horrek 2019an zehar jarduera hori sustatzeko ordainduko duen dirulaguntza BI MILA EUROKOA (2.000,00 EURO) izango da urtean, eta urteko programaren garapenak eragindako gastuak ordaintzeko eta koroko zuzendariaren gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Dirulaguntza hau bateragarria da Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin, kultura- eta kirol-taldeei zuzendutako dirulaguntzak arautzen dituzten ordenantza eta oinarri arautzaileen arabera. Hala ere, dirulaguntza hori elkartearen dirusarrera gehigarritzat hartuko da.

LAUGARRENA.- Diruz lagunduko diren jardueren exekuzio-epea diruz lagunduko den 2019. urtearen denbora-mugetara egokituko da.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*BOSGARRENA.- Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 90 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 10ari dagokionez, dirulaguntzari dagokion urtearen memoria ekonomikoa (urtea amaitu ondoren) aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Aiarako Udalak egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du edozein momentutan.*

*ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteak Aiarako Udalarekiko lankidetzara eta haren babesa islatu beharko ditu publizitate-ekintzetan.*

*SEIGARRENA.-Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:*


- a) *Jasotako dirulaguntza guztien aitortzea, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.*
- b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria, edo, halakorik eduki ezean, Udalak dagozkien organismoei informazio hori eskatu ahal izateko baimena.*
- c) *Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:*
  - *Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), dirusarrera eta gastuekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz. Udal dirulaguntzaz gain jasotako dirusarrera guztiak aitortu beharko dira (AFArekin dirulaguntza eta, egonez gero, bestelako laguntzak).*
  - *Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egina izanaren zinpeko deklarazioa).*
  - *Gastu guztien justifikazio-dokumentuak:*

*Koroko zuzendariaren kontratazio-gastuak: behar bezala igorritako fakturen kopiak, Foru Ogasunean egindako erretentzioak ordaindu izanaren ziurtagiriekin.*

*ZAZPIGARRENA.- ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*

*Adostutakoarekin konforme daudela adierazteko, bi alderdiek lankidetzara-hitzarmen honen bi kopiak sinatu dituzte, ezabaketarik eta zuzenketarik gabe, dokumentua osatzen duten 4 folioetan. Halaber, hura betetzeko konpromisoa hartu dute, goiburukoan zehaztutako data eta lekuan.*

*ALKATE-PRESIDENTEA, "ESKUTXIKO AHOTSAK" ELKARTEKO  
PRESIDENTEA,  
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta Sin.: Manuela Otero,*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*Nire aurrean, IDAZKARIA,  
Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas".*

**Bigarrena.** - Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.

**Hirugarrena.** - ESKUTXIKO AHOTSAK elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan."

Kultura, Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**8º.- Aiarako Udalaren eta Aiaraldea Koop. Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena.**- Jarraian, Udalbatzari 2019ko irailaren 5eko Alkatezeta Akordioaren berri eman zaio, zeinak honakoa dioen:

*"IKUSI DA.- Euskara gure udalerrian sustatzeko udal-interesa, zeina onuragarria den udalerrarentzat.*

*IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN arteko lankidetzahitzarmenerako proposamena, erakundearen jarduerak 2019an izango dituen gastuen zati bat diruz laguntzeko.*

*AINZAT HARTU DA.- Badagoela kreditua 2019rako udal-aurrekontuan hitzarmenak ekarriko dituen gastuak finantzatzeko.*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako **AKORDIO** hau hartzea proposatzen da:

**Lehenengoa.**- Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN arteko lankidetzahitzarmena onestea, 2019ko jarduerako gastuak ordaintzeko. Honela dio testuak:

*"AIARAKO UDALAREN ETA AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN 2019KO HITZARMENA, EUSKARAZKO TOKIKO HEDABIDEAK SUSTATU ETA FINANTZATZEKO".*

Aiarako udaletxean, 2019ko                    -ren                    (e)(a)n.

**BILDU DIRA**

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea, 44686448-R NAN-zenbakiarekin, erakunde horren ordezkartzan, Aiarako Udaleko idazkari andrearekin batera, M<sup>a</sup> DEL CARMEN ROJO PITILLAS andrea, 22.728.430-Z NAN-zenbakiarekin, zeinak ekitaldiaren fede ematen duen.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

Bestetik, *LUIS XABIER UGALDE GULIAS* jauna, *AIARALDEAKO KOOPERATIBA ELKARTEKO* presidentea, , erakunde horren ordezkartzan, F-01468248 IFKarekin.

*Bi alderdiek erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzaz-hitzarmen hau betetzeko gaitasuna aitortu diote elkarri. Horrekin bat etorriz, honakoa*

### ADIERAZI DUTE

*Etorkizuneko informazioaren gizarlean funtsezkoa da euskararen aldeko hurbileko komunikazio-espazioak irabaztea, eta are gehiago komunikazioak eta hedabideek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantzia ikusita.*

*Horregatik, “AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK”, irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko elkarte (2017 arte “Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkarte” izena zuen, eta, beraz, elkarte izatetik kooperatiba izatera igaro zen), zeina Aiarako eskualdean euskarazko komunikazioa sustatzeko sortu zuten, helburutzat du eskualdean euskarazko komunikazio-jarduerak eta hedabideak abian jarri eta garatzea, bai alor tradizionalak eta bai komunikazioaren alor berritzaileak landuz.*

*Gizarte-kohesioaren alde ere egin nahi du, irabazi-asmorik gabe eta administrazioekiko eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-eragileekiko elkarlanean.*

*Helburu horiek lortzeko, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK eta AIARAKO UDALAK euskarazko tokiko hedabideak sustatu eta babesteko konpromisoa berretsi dute, eta, zehazki, AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK sustatu eta kudeatzen dituen hedabideak: [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) webgunea (Aiaraldea Gaur izenekoa) eta hamabost egunean behin paperean argitaratzen den “Aiaraldea Hemen” aldizkaria; izan ere, hedabide horien bidez sustatzen da hizkuntza-normalizazioa, eta AIARAKO udalerrarentzat onuragarria da hori.*


*AIARAKO Udalak uste du proiektuak interes publikoa duela udalerrri-mailan. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak “gizarte-ekimeneko” izaera aitortu dio kooperatibari.*

*Beraz, erakundeek euskarazko tokiko hedabideen sustapenean dute parte-hartze aktiboa egia bihurtzeko, bi alderdiek lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzen dute. Honako hau da hitzarmenaren edukia:*

### KLAUSULAK

*Lehenengoa: Hitzarmen honetan AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK eta AIARAKO UDALAK 2019an izango duten lankidetzaren xehetasunak zehazten dira, euskarazko hedabideei dagokienez. Lankidetzaren helburua epe luzekoa denez, bi alderdiek lankidetzaz urte honetan zehar garatzeko konpromisoa adierazten dute, eta, behin amaitu ondoren, hurrengo urterako baldintzak negoziatzekoa.*

*Urte bakoitzaren hasieran, Aiarako Udalak hitzarmena luzatzeari buruzko erabakia hartuko du, dagokion Informazio Batzordeak amaitutako urteko dokumentazioa eta hurrengo urterako*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*proposamen eta baldintzak aztertu ondoren. Dokumentu horiek Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak bidaliko dizkio.*

*Espiritu horrekin, hitzarmen hau 2019 urterako sinatzen da, 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte.*

*Bigarrena: Hitzarmena sinatzen den unetik, AIARAKO Udalak AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jarduera eta kontu ekonomikoen berri izateko eskumena izango du*

*Horretarako, eta, bien arteko harremana eta lankidetzaren etengabekoak izateko, Aiarako Udalak komunikazio-taldearen finantzaketa xehatuaren, balorazioen eta urteko planaren berri izateko eskubidea izango du.*

*Era berean, eta, hitzarmena sinatu duten alderdietako batek hala eskatzen duenean, bi alderdiak bilduko dira, bai hitzarmenaren edukien jarraipena egiteko eta bai harekin lotutako beste xede baterako.*

*Hirugarrena: AIARAKO Udalak AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI honako ekarpen ekonomiko hau egiteko konpromisoa hartzen du:*

- 2019an: 2.040,00 €).

*Honako hau izango da ordainketa-modua: Aiarako Udalak adostutako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du behin hitzarmena sinatutakoan. Gainerako % 20ari dagokionez, behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.*

*Ekarpen ekonomikoa AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN kontu korronteko ordainketaren bidez egingo da (Laboral Kutxa: ES55-3035/0045/21/0450079351).*

*Bestalde, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK jasotako urteko zenbatekoaren bikoitza justifikatu beharko du, hitzarmen honen xede diren jardueren burutzeari begira.*

*Laugarrena: Hitzarmena sinatzen den unetik aurrera, AIARAKO Udalak, zeinak dirulaguntza emango dien Aiaraldea Gaur eta Aiaraldea Hemen hedabideei (AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jabetzakoak), aintzatespen publikoa jasoko du: babesle modua agertuko da bi hedabideetan.*

*Udalaren logotipo normalizatua gehituko da webgunearen kreditu-informazioan eta hamabost egunean behin egingo den paperezko argitalpenean (posta-helbideak, egoitzak, etab.), hitzarmena indarrean dagoen bitartean.*

*Bosgarrena: Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa tratatu eta hedatzeko orduan, edozein motatako eduki eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, plurala, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Beraz, alderdi politikoen eraginetik aldentu eta inpartzialtasuna zainduko du. Eskualdeko gainerako elkarteek eta edozein herritarrek hartu ahal izango dute parte webgunean.*

*Seigarrena: Iritzi-atalari dagokionez, edozein herritarrek izango du bi hedabide horietan bere iritzia emateko eskubidea eta aukera. Hedabideek, alderdikieratik aldentuta, iritzi politiko ezberdinetako pertsonen presentzia bermatuko dute, guztien arteko orekaren alde eginez.*





# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

*Zazpigarrena: Aipatutako espiritu irekiarekin bat etorritz, hitzarmen honen xede diren hedabideetan mota guztietako gai eta edukiak jorratuko dira, pertsonenganako errespetua bermatuz, eta ez dira irainak eta difamazioak onartuko.*

*Zortzigarrena: Aiaraldea Gaur eta Aiaraldea Hemen euskara batuan idatziko dira, eta espazioa emango diete eskualdeko hizkuntza-aberastasunari eta aldaerei. Hizkuntza irakurlearentzako eredu bihur daiteke: alde horretarik, ahalik eta eredurik onena eskaintzen ahaleginduko dira. Beraz, gutxieneko hizkuntza-kalitatea bermatuko da.*

*Bederatzigarrena: Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa (2.040,00€) JUSTIFIKATZEKO, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:*

*a) Jasotako dirulaguntza guztien aitorpena, bai publikoak eta bai pribatuak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko eskuratutakoak.*

*b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria.*

*c) Jarduerari buruzko honako dokumentu hauek:*

- Diruz lagundutako ekitaldiaren dirusarrera eta gastuen balantzea*
- Diruz lagundutako ekitaldiaren jarduera-memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta horiek egin izanaren zinpeko deklarazioa).*
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamendu-gastua), dirusarrera eta gastuekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-dokumentuak aurkeztuz.*

*Lehen estipulazioan jasotako baldintzak urratuz gero, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*2020ko urtarrilaren 31 baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren estipulazioan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.*

*Dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero iragartzen dituen gainerako dirulaguntzekin.*

*2020ko urtarrilaren 31 baino lehen, hau da, hitzarmen-urte berriaren aurretik:*


- Urte berrirako aurrekontuaren zirriborroa.*
- Urte berrirako jarduera-proiektuaren zirriborroa.*
- Arabako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatzen dutenak zor guztiak ordaindu dituela.*

*Horrela jasota gera dadin, bi alderdiek hitzarmena sinatzen dute xede bakarrerako, eta bi kopia sinatu dituzte, aurretik adierazitako data eta lekuan.*

**GENTZA ALAMILLO UDAETA,**

**LUIS XABIER UGALDE GULIAS,**

I.F.K. C.I.F. P0101100F



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

Aiarako Udaleko alkatea.

Sin.- Gentza Alamillo Udaeta

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteko  
presidentea.

Sin.- Luis Xabier Ugalde Gulias.

Idazkaria,

Sin.- M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas."

**Bigarrena.**- Alkate-presidenteari hitzarmen hau sinatzeko eskumena ematea.

**Hirugarrena.**- AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatu dezan."

Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, transkribatutako akordio-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**9<sup>o</sup>.**- **Valvospain enpresari buruzko adierazpen instituzionala.**- Jarraian, Valvospain enpresaren ordezkari sindikalek igorritako idatziaren berri eman zaio Udalbatzari, zeinak honela dioen:

*"Gaur egun Valvospain enpresak 36 milioi eurotik gorako zorra du, urte eta erdi inguruko epean sortutakoa, eta 3 hilabete egon gara soldatarik jaso gabe. Hartzekodunen konkurtsoan gaude, eta likidazio-fasean sartzeko arriskuan: horrek lan-kontratu guztiak iraungitzea eragingo luke.*

*Langileok, egoeraren aurkako protesta moduan, greban egon gara hilabete baino gehiagoz. Enpresak jakinarazi zuenean bankuekin hitzarmen bat sina zezakeela, enpresari etorkizun bat emateko aukera ikusi genuen.*

*Prozesu hau kudeatzaile kaskarren erantzukizuna da, eta, betiko moduan, langileok jasan ditugu ondorioak.*

*Egungo akziodunetako batzuen kezka bakarra poltsikoak betetzea izan da, eta erabat ahaztu dute enpresaren eta bertan lan egiten dugunon familien jasangarritasuna.*

*Enpresaren etorkizunean sinesten dugu, uste baitugu kudeaketa egokiarekin eta langileok ematen diogun prestakuntza eta esperientziarekin nazio-mailako balbula-sektorean onenetakoa izango dela berriro ere.*

*Valvospain Lázaro Ituarte enpresatik sortu zen, zeina erreferentzia bat zen Aiarako bailaran. 90 urte baino gehiagoko antzinatasunarekin, eskualdeko familia ugariaren sostengua izan da.*

*Hori dela eta, batzordeko kideok Amurrioko Udaleko tokiko Udalbatzari helarazten diogu honako mozioa, haiek eztabaida eta onar dezaten:*



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

### *Adierazpen instituzionala*

*Enpresaren likidazio-arriskuaren eta plantilla osoa iraungitzeko EEEn aurrean, Udal honetako Udalbatzak honakoa adierazten du:*

*- Uko egiten diegu enpresaren itxierari eta Valvospain-en iraungitzen EEEn.*

*- Enpresako arduradunei, Eusko Jaurlaritzari, Industria Sailari eta gainerako erakundeen eskatzen diegu parte hartu dezaten konponbideen bilaketa aktiboan, Valvospain eta bertako langileen jarraitutasunari begira.*

*- Adierazpen hau helaraztea enpresako arduradunei, eskualdeko udalei, Aiarako Kuadrillari, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailari, Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Eusko Legebiltzarrari.”*

*Horregatik, Udalak bere egiten du testu hori, eta adierazpen instituzional moduan onesten du:*

*Valvospain enpresaren likidazio-arriskuaren eta plantilla osoa iraungitzeko EEEn aurrean, Udal honetako Udalbatzak honakoa adierazten du:*

*- Uko egiten diegu enpresaren itxierari eta Valvospain-en iraungitzen EEEn.*

*- Enpresako arduradunei, Eusko Jaurlaritzari, Industria Sailari eta gainerako erakundeen eskatzen diegu parte hartu dezaten konponbideen bilaketa aktiboan, Valvospain eta bertako langileen jarraitutasunari begira.*

*- Adierazpen hau helaraztea enpresako arduradunei, eskualdeko udalei, Aiarako Kuadrillari, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailari, Arabako Foru Aldundiari, Arabako Batzar Nagusiei eta Eusko Legebiltzarrari.”*


Arespalditzan, 2019ko irailaren 18an."

Kontuak, Ogasuna, Funtzio Publikoa eta Barne Erregimena Informazio Batzorde Bereziak gai horren aldeko txostena egin zuen 2019ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran.

Udalbatzak horren berri izan du, eta aho batez adostu du, ohiko botazioaren bidez, Valvospain enpresari dagokion adierazpen instituzionala onestea, idatzita dagoen moduan.

**10º.- Aiarako Udaleko ordezkaria izendatzea INDESA 2010 SLn** Jarraian, Korporazioari 2019ko irailaren 4ko Alkatetza Akordio proposamenaren berri eman zaio, honako hau diona:

**“INDESA 2010 SLn AIRAKO UDALEKO ORDEZKARIA IZENDATZEKO AKORDIOAREN PROPOSAMENA”**



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

**IKUSI DA** 2011ko otsailaren 17ko Udaleko osoko bilkuraren akordioaren bidez, Aiarako Udalaren partaidetza onartu zela INDESA 2010, SL Sozietate Publikoan, Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak sailean izenpetuta dagoena, partaidetza bat (1) erosita 50,00 euroko zenbatekoan.

**IKUSI DA** Sociedad Mercantil Indesa SLk igorri duen mezua. Horren bidez, eskatu dute Sozietate horren Bazkideen Batzar Orokorrean Udaleko pertsona fisiko baten izendapena, eta, hala badagokio, Administrazio Batzarraren sailburuaren izendapen-proposamena.

Azaldutakoagatik, Udaleko osoko bilkurari akordio bat adosteko proposatu zaio GENTZA ALAMILLO UDAETA jn. Aiarako Udaleko ordezkari izendatzeko Sociedad Pública INDESA 2010 SLn.

Arespalditzan. – ALKATE-UDALBURUA. -Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA”

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du, Informazio Batzordean azaldu zuen moduan, bere taldeak Susana Martín zinegotzi andrearen izendapena proposatzen duela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, Batzordean esan zuen moduan, bere izendapena aurkezteko arrazoia Susana Martín zinegotzi andreak duen eginbeharkopurua dela, eta, horregatik, oso zaila izango luke bertaratzea. Gainera, alkateak denbora gehiago dauka arduraldi eskusiboa duelako; hala ere, egindako ekarpenak kontuan izango dira.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du bere taldeak, Batzordean egin zuen bezala, Susana Martín zinegotzi andrearen izendapena proposatzen duela.

Gai honen aldeko txostena egin zen Gizarte Osasun, Berdintasun eta Immigrazio eta Adindun Pertsonen Informazio Batzordearen ohiko bilkuran, 2019ko irailaren 10ean egin zena. Bilkura horretan, EAJ-PNV taldearen ordezkariak aldeko botoa eta EH-BILDUren eta AIARA BATUZen ordezkariak kontrako botoa eman zuten.

Esku-hartzeak bukatu dira, eta EAJ-PNV taldearen ordezkariak aldeko botoa eta EH-BILDUren eta AIARA BATUZen ordezkariak kontrako botoa eman dutela, adostu da aldeko txostena egitea eta transkribatutako akordio-proposamena adostea idatzita dagoen moduan.

**11º.- Euskara eta Hezkuntza Batzordeak mahaiburua eta mahaikidea izendatzean egindako akatsaren zuzenketa.** Jarraian, Korporazioari 2019ko uztailaren 4an egindako ezohiko osoko bilkuran hartutako erabaki batean dagoen akatsaren berri eman zaio, Udalaren Informazio Batzordean eraketa adosten duena; izan ere, Gentza Alamillo Udaeta Euskara eta Hizkuntza Informazio Batzordearen mahaiburu eta mahaikide izendatu zen.

Korporazioa jakinaren ganean geratu da, eta ohiko bozketan aho batez onartu du aipatutako akatsa zuzentzea. Beraz, Euskara eta Hezkuntza Batzordeko mahaikide izendatu da Iñigo Pinedo Vadillo jn., Gentza Alamillo Udaeta jaunaren ordez.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

**12ª.- Honako hauen berri ematea: kontaketa-aktak, gastuen eta dirusarreraren balantzea eta 2019ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko kreditu-kartillen eta aldaketen egoera.** – Jarraian, eguneko gai-zerrendako puntu honetan aipatutako dokumentazio ekonomikoaren berri eman zaio Korporazioari, zinegotziei deialdiarekin batera helarazi zaiena.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

**13º.- “Udal-igerilekuetan estalitako gunea instalatzeko” obraren kontratua esleitzeko administrazio-klausula berezien pleguen berri ematea.** Jarraian, Korporazioari “udal-igerilekuetan estalitako gunea instalatzeko” obraren kontratua esleitzeko administrazio-klausula berezien pleguen berri eman zaio, Obren eta Zerbitzuen 2018-2019 Foru Planaren barruan dagoena.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

**14º.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.** Jarraian, Korporazioari 203/2019 eta 414/2019 zenbakien artean dauden Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta horien helburua, laburbilduz, honako hau da:

203/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Y. G. O. - Etxebizitzan estaldura konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

204/2019 ALKATETZA DEKRETUA. -PFEZ-1/2019ren atxikipenari dagokion ordainketa onartzea.

205/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Kiroldiegen kuotak ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea, 2019 deialdia.

206/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - J.L. P. S. - Aparkamendu-txartelaren berrikuntza onartzea.

207/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - San José y San Buenaventura fundazioa. - Obretarako udal-lizentzia ematea Arespalditzan dagoen igerileku bat konpontzeko.

208/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - EH-Bildu udal-taldea. - Lokal baten erabilera onestea hauteskunde-ekitaldi baterako.

209/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Telefónica de España, S.A. U. - Mugan zenbait poste instalatzeko lizentziarako eskaria ezeztatzea.

210/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - H.O. I. - Aparkamendu-txartelaren berrikuntza onartzea.

211/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - R.M. M. I. - Obretarako udal lizentzia ematea Salmantónen dagoen abeltzaintza-nabe baterako sarbidea egiteko.


212/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - M.I. C. F. - Hondakinen kudeaketarako eta obren eraispenerako kudeaketagatik ordaindutako fidantza itzultzea.

213/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - MB. R. B. - Biztanleen Udal Erroldan baja ematea behar den bezala izena ez emateagatik.

214/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - N.L. G. - Biztanleen Udal Erroldan baja ematea behar den bezala izena ez emateagatik.

215/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - F/2019/7 faktura-zerrenda onartzea.

216/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Elkarkidetzeta Pentsioak. 2019ko maiatzari dagokion



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

faktura onartzea.

217/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Langileen eta alkatearen nominen hileko txostena onartzea, 2019ko maiatza.

218/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Urtarriletik maiatzera langileen eta alkatearen soldata-igoeren atzerapenen-txostena onestea.

219/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Korporatiboei ekarpen ekonomikoa egitea, 2019ko maiatza.

220/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Ekarpen ekonomikoa partidu politikoei, 2019ko maiatza.

221/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Segurtasun eta Osasun Plana onestea. - Luiaondoko Barrena auzoan aparkalekua jartzeko eta hobekuntzak egiteko obra.

222/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Hondakinen Kudeaketa Plana onestea. - Luiaondoko Barrena auzoan aparkalekua jartzeko eta hobekuntzak egiteko obra.

223/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - TG Gizarte Segurantzaren 2019ko apirileko kuota ordaintzea.

224/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - I.P. V. Desplazamenduen gastuen ordainketa onestea.

225/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Obrak eta Zerbitzuak 2020-2021 Foru Planerako laguntza eskatzea.

226/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - JL. R. M. 2019ko TMIZren ordainagiriaren zati baten itzulera onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

227/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - AI. C. G. 2019ko TMIZren ordainagiriaren zati baten itzulera onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

228/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - VF. Z. T. 2019ko TMIZren ordainagiriaren zati baten itzulera onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

229/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - EM. Z. V. 2019ko TMIZren ordainagiriaren zati baten itzulera onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

230/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Dirulaguntza eskatu du San Isidro 2019 abeltzaintza-azoka antolatzeagatik.

231/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - M.M. C. 2019ko TMIZren kuota salbuestea ezgaitasuna egiaztatzeagatik.

232/2019 ALKATETZA DEKRETUA. -P.M. I. C. - Aparkamendu-txartelaren berrikuntza onartzea.

233/2019 ALKATETZA DEKRETUA. – J.O.O. Aparkamendu-txartela ematea.


234/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Herri Urrats. - 2018 dirulaguntza egiaztatzeko dokumentazioa eskatu du.

235/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Ehige Gurasoen Elkarte. - 2018 dirulaguntza egiaztatzeko dokumentazioa eskatu du.

236/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - F/2019/8 faktura-zerrenda onartzea.

237/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Amor Misericordioso ikastetxea. - 2018 dirulaguntza egiaztatzeko dokumentazioa eskatu du.


238/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Himaya GKE. - 2018 laguntza egiaztatzeko dokumentazioa eskatu du.



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

- 239/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Obra txikirako lizentzia ematea Pico de Menoiora heltzeko bideko tarte bat konpontzeko.
- 240/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Obra txikirako lizentzia ematea Menagarain bide bat egokitzeko.
- 241/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Etxaurren ikastola. Bi urteko gelako talde psikopedagogikoari eta laguntzaileari nominak ordaintzea, maiatza.
- 242/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Zuhatzako Administrazio Batzarra. - Hilerrira doan bidea zolatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.
- 243/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Etxegoiengo Administrazio Batzarra. -Obra txikirako lizentzia ematea babes-hesiak jartzeko landa bide batean.
- 244/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Construcciones Molinuevo. -Obrarako kontratu txikia esleitzea Etxaurren ikastolan gimnasioko estaldura konpontzeko.
- 245/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - G.T. L. - Obrarako udal-lizentzia luzatzea Arespalditzako etxebizitza batean estaldura konpontzeko.
- 246/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Lujoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du ura hornitzeko sarea berritzeko obrarako lizentzia emateko.
- 247/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Kexaako Administrazio Batzarra. - Obrarako udal-lizentzia ematea Kexaako bolatokiaren alboko itxiera egiteko.
- 248/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Urruela, SC. - Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko txostena eta LCaren espedientearen jarraipena onestea.
- 249/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Kexaako Administrazio Batzarra. - Obra txikirako lizentzia ematea udaletxeko ganbaran zulaketa, zarpiatzea eta argiaren instalazioa egiteko.
- 250/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Lujoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du obrarako lizentzia emateko Lujoko arazketa-sistemaren berrikuntzarako.
- 251/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Luiaondoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du obrarako lizentzia emateko Barrena kaleko 17 zenbakia urbanizatzeko.
- 252/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Luiaondoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazioa eskatu du obrarako lizentzia emateko Kultur Zentroko sarbidean dauden hesi arkitektonikoak kentzeko.
- 253/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Sojoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du obrarako lizentzia emateko Sojon dagoen arazketa sistemaren berrikuntzarako.
- 254/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Etxegoiengo Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du obrarako lizentzia emateko bidea garbitzeko eta petatxatzeko obra egiteko.
- 255/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Luiaondoko Administrazio Batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatu du obrarako lizentzia emateko Luiaondoko eskola-sarretako biltegiak egokitzeko.
- 256/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - I. Larzabal Ordeñana barne-funtzionario izendatzea.
- 257/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Aiarako Kuadrilla. Ekarpem ekonomikoa gastu orokorrak eta beste batzuk ordaintzeko, 2019/2.
- 258/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Langileen eta alkatearen nominei buruzko hileroko txostena onestea, 2019ko ekaina.




# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

- 259/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Langileen eta alkatearen ordainketa gehigarriaren nominei buruzko txostena onestea.
- 260/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - H.O. I. -Aparkamendu-txartela ematea.
- 261/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - JM. U. P. - Dokumentazioa eskatu du hondakinen fidantza itzultzeko Menagarain eraikinak eraisteko obran.
- 262/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - JM. U. P. - Dokumentazioa eskatu du Menagaraiko lursail batzuetan banaketa egiteko lizentzia eskatzeko.
- 263/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - FJ. J. A. - Fidantza eskatu du igerilekua eraikitzeko obrarako hondakinak kudeatzeko.
- 264/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Udal-ordezkariek izendatzea Eskola Batzordeetan.
- 265/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - Alkateordeak izendatzea.
- 266/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - E.M. H eta MC. G. B. 2019 hiriko OHZ hobaria ematea.
- 267/2019 ALKATETZA DEKRETUA. - A.S. Y. - Aparkamendu-txartela berritzea.
